

Montserrat Caballera bezalako ahotsa izateko ukendua

Osagaiak:

- 1-Montserrat Caballera ahots korda zati bat.
- 2-Txori baten bizpahiru kaka
- 3-Mozarrent " Argizaria " (bellarrietakoa noski).
- 4-Kilo erdi simaur
- 5-Mantxialto baten bi hanka
- 6-Hipotenusa loreak ateratzen duen sustantzia nazkagarria

Lehendabizi Hipotenusa lorearekin hasiko gara. Lore arraro xamar hau Uranga parkean aurkituko duzue. Parke hau Burlata herrian dago, Iruñetik hurbil. Oso zaila egingo zaizue Montserrati ahots korda zati bat kentzea, baina lasai oso majua da eta. Pausu batzuk jarraitu behar dira nahaste ona eduki nahi baduzue. Gero txori baten bizpahiru kaka sartu beharko dituzue bainuontzi zahar batean. Ondoren Mozarrent hilobirantz abiatu beharko zarete eta han belarrietako argizari zati bat atera beharko duzue. Ondoren kilo erdi simaur hartuko duzue, nahi duzuen tokitik. Geroago mantxinsalto bati bi hanka kendu eta bainuontzira bota beharko dira eta azkenik Hipotenusa eta Montserrat Caballera sustantzia eta ahots kordak botako dituzue. Hau bukatu eta gero, sukaldeko goilara izugarri handi bat aurkitu eta goilararekin dena nahasi beharko duzue hau abesten:

Montserrat, Montserrat
Zurea bezalako ahotsa izan ahala
eskaini, mesedez, ahos ikara,
honekin zurekin egingo dut dardara.

Nola erabili?

Bainatu beharko duzue bainuontzian eta zazpi zurrutada hartu beharko dituzue, nahi duzuen momentuan.

Hiztegia:

1-Argizaria: gizakiok daukagun gauza belarri barruan, berde eta hori kolorekoa

2-Simaurra: baserrietan eta abar, aurkitu dezakegun gauza. Oso usain txarrekoa, eta lurzailei botatzen zaiena.

SARA DUQUE ALBENIZ